

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

IRAGARKIA, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Industria eta Meategien Administrazio-rako Zuzendaritzarena, Bizkaiako Lurralde Historikoko Ortuella eta Trapagaran udalerriko ustiapen-emakidak iraungi izan direla jakinarazten duena. Ustiapen-emakidak: «320.a, Limitada», «1499.a, Inocente», «1510.a, Acrisolada», «1524.a, Abundancia», «1526.a, Una», «2179.a, Aumento a Una», «7099.a, Demasía a Una» eta «11083.a, Demasía a Una».

11438

### OSASUN SAILA

IRAGARKIA, 62/2003 eta 67/2003 Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoetan (prozedura laburtuak) hirugarren interesatu direnak epatzeko dena.

11439

### ARABAKO FORU ALDUNDIA

IRAGARKIA, Diputatuen Kontseiluarena, «Manzanosen A-3310 errepidea 21,210 km-tik 22,100 km-raino egokitzeko eta burdinbidearen azpiko pasabide berria egiteko eraikuntza proiektuak» eraigindako ondasun-eskubideen behin betiko zerrenda onartzeko dena.

11447

## Xedapen Orokorrak

### OSASUN SAILA

#### Zk-3490

ERABAKIA, 2003ko martxoaren 28koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazioeko Kontseiluarena, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren datuak babesteko Segurtasun Batzordea sortu eta haren zereginak ezartzekoa.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren estatutuak jasotzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, eta haren edukia jarduketara zehatzen bidez garatzeak duen garrantzia ikusita, egokitzat jo da «Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren datuak babesteko Segurtasun Batzordea» sortzea eta haren zereginak ezartzea. Horretaz aparte, kontuan hartzen badugu ekainaren 1eko 994/1999 Errege Dekretua, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun neurriak arautzen

## Otros Anuncios Oficiales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

ANUNCIO de la Dirección de Administración de Industria y Minas, por el que se hace pública la caducidad de las Concesiones de Explotación denominadas «Limitada, n.º 320», «Inocente, n.º 1.499», «Acrisolada, n.º 1.510», «Abundancia, n.º 1.524», «Una, n.º 1.526», «Aumento a Una, n.º 2.179», «Demasía a Una, n.º 7.099» y «Demasía a Una, n.º 11.083», sitas en los términos municipales de Ortuella y Trapagaran del Territorio Histórico de Bizkaia

11438

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

ANUNCIO – Emplazamiento a terceros interesados en los Recurso Contencioso Administrativos (Procedimiento Abreviado) n.º 62/2003 y (Procedimiento Abreviado) n.º 67/2.003.

11439

### DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

ACUERDO del Consejo de Diputados por el que se aprueba la relación definitiva de los bienes y derechos afectados por el Proyecto de Construcción de Acondicionamiento de la Carretera A-3310, P.K. 21,120 a P.K. 22,100 y nuevo paso bajo el ferrocarril en Manzanos.

11447

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

#### Nº-3490

ACUERDO de 28 de marzo de 2003, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por el que se crea y se asignan funciones a la Comisión de Seguridad para la Protección de Datos de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

A la vista del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud y considerando la importancia de desarrollar su contenido a través de actuaciones concretas se ha valorado positivamente la propuesta de creación y asignación de funciones a la que se denominará «Comisión de Seguridad para la Protección de Datos de Osakidetza-Servicio vasco de salud» Si a esto añadimos, lo contemplado en el Real

dituena, eta erakunde publikoaren fitxategietarako prestatu den Segurtasun Agirian xedatutakoa, ezinbestekoa da batzorde hori osatzea, gai horren ingurukoak bildu eta koordinatu ditzan.

Erakunde zentralaren administrazio eta kudeaketa korporatiboaren zuzendari nagusiaren proposamena da batzordea osatzea, sortuko den batzordeari zein zeregin ezarriko zaizkien kontuan hartua, baita 12.3 artikulua agindutakoa ere; aipatu artikulua dioenaren arabera, erakunde zentralari baitagokio «aholkularitza eta laguntza tekniko zerbitzu amankomunak eskaintzea, besteak beste, zerbitzu sanitarioetako erakunde bakoitzaren programa eta aurrekontuak prestatzearekin, antolakuntza eta giza baliabideekin, hirugarrenekiko kanpo harremanekin, informazio eta komunikazio sistemeekin, aholkularitza juridikoarekin, finantza kudeaketarekin, baliabide material eta zerbitzu osagarriekin, zerbitzuen jarraipen, kontrol eta ikuskapenarekin, interes orokorreko helburuen estatistikarekin, eta argitalpenekin zerikusia dutenak».

Proposamena aztertuta, jarduketaz zehatz hau aipatu estatutuen 4.1 artikulua jasotzen duen ente publikoaren ahalmen barruan sartzen da, izan ere, artikulua horrek dioenaren arabera, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak «nortasun juridiko publiko berezia du, baita haren helburuak betetzeko eginbeharrekoak gauzatzeko ahalmen osoa ere»; horretaz aparte, batzordearekin lortu nahi da 3.b) artikuluan aurreikusten dena betetzea, hau da, «informazio maila eten gabe hobetzea» bereziki sustatzeko zeregina duten jarduketak burutzea.

Beraz, aurreko guztiarekin bat eginda, Administrazio Kontseiluak adierazitakoa betetzeko eta aipatu estatutuetako 8.5 artikuluan aitortzen zaizkion eskumenen arabera, honakoa

#### ERABAKI DU:

**Lehenengoa.**— Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren datuak babesteko Segurtasun Batzordea sortzea eta ondoren adieraziko diren eskurantzak aitortzea:

a) Zuzendaritza Nagusiari eta Erakunde Zentralaren Zuzendaritzaren Zuzendaritzari segurtasun informatiko eta osasun datuen babesaren inguruko aholkularitza ematea.

b) Zerbitzuen erakunde guztien kontsultoretza, bai arreta espezializatukoetan bai lehen-mailakoetan, segurtasun informatiko eta osasun datuen babesaren inguruan, eta gai horren inguruko jarduketak koordinatzea.

c) Segurtasun informatiko eta osasun datuen babesaren inguruan baita gai horiekin zerikusia duten bestelako aspektuen inguruan ere etorkizuneko ildo estratagikoak ezartzean parte hartzea.

Decreto 994/1999, de 1 de junio, por el que se regulan las medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contengan datos de carácter personal, y lo dispuesto en el Documento de Seguridad elaborado para los ficheros del ente público, resulta imprescindible habilitar dicha Comisión, como instrumento aglutinador y coordinador en dicha materia.

La propuesta nace de la Organización central de administración y gestión corporativa, a través de su Director General, en consideración de las funciones que se le van a asignar a la Comisión que ahora se crea y en cumplimiento del mandato del artículo 12.3, a cuyo tenor corresponde a dicha Organización central «suministrar servicios comunes de asesoramiento y apoyo técnico en relación con las funciones de programación y presupuestación de cada organización de servicios sanitarios, organización y recursos humanos, relaciones externas con terceros, sistemas de información y comunicación, asistencia jurídica, gestión financiera, gestión de medios materiales y servicios auxiliares, seguimiento, control e inspección de servicios, estadística para fines de interés general y publicaciones».

Examinada la propuesta, esta actuación concreta ha de subsumirse en la capacidad del ente público contemplada en el artículo 4.1 de los referidos Estatutos Sociales, ya que, a tenor del mismo, se reconoce para Osakidetza-Servicio vasco de salud «personalidad jurídica pública diferenciada y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines»; y se considera que, con ella, se pretende dar debido cumplimiento a aquellas actuaciones que se refieren a la función de promover «especialmente la mejora continua de los niveles de información» prevista en el artículo 3.b).

Y, por tanto, de conformidad con la exposición que antecede, este Consejo de Administración, para debido cumplimiento de lo expuesto y en virtud de las competencias atribuidas al mismo en el artículo 8.5 de los referidos Estatutos Sociales, viene a adoptar el siguiente

#### ACUERDO:

**Primero.**— Crear la Comisión de Seguridad para la Protección de Datos de Osakidetza-Servicio vasco de salud con las atribuciones que a continuación se hacen constar:

a) Asesoramiento a la Dirección General y Direcciones de División de la Organización Central en materia de seguridad informática y protección de datos sanitarios.

b) Consultoría de todas las organizaciones de servicios, tanto de atención especializada como de atención primaria, en materia de seguridad informática y protección de datos sanitarios, coordinando las acciones en dicha materia.

c) Participación en el establecimiento de las líneas estratégicas futuras en materia de seguridad informática y protección de datos sanitarios y otros aspectos relacionados con dichas materias.

d) Prestatzen diren Segurtasun Agiriak onartzea, al-dian-aldian segurtasun gaiaren inguruan egiten diren kontu-ikuskarritza txostenak gainbegiratzea, baita Segurtasun Agirian xedatutakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzeak ere.

e) Informazio Sistemetan eragin larria duten gertakizunen inguruko txosten esplikatzaileen analisisa, baita definitzen diren bestelako Segurtasun Planen jarraipena ere.


**Bigarrena.**— Batzordeak erakunde publikoaren kide anitzeko organo gisa funtzionatuko du, batzordea osatzeko biltzen den lehenengo al-dian ezartzen denari, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluaren II eta III kapituluek diotenari jarraiki.

Jerarkia eta zereginen dagokienez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Zuzendaritza nagusiaren menpe egongo da batzordea. Espreski, haren zereginak arinagoak izan daitezten, egoki ikusten diren lantaldeak osatu ahalko dira haren barruan, eta lantalde horien ondorioek batzordearen onespina beharko dute.

**Hirugarrena.**— Batzordearen zereginak gai horren inguruan indarrean dauden legeek diotenaren arabera izango dira, eta erabaki hau ematen den momentutik, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren menpe dagoen Agiri klinikoak balioetsi, hautatu eta garbitzeko batzordearekin koordinazioan.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren zuzendari nagusiak izendatuko ditu sortu berri den batzordeko kideak zein haien ordezkioak. Batzordeburu eta idazkaria batzordekieen artean aukeratuko ditu zuzendari nagusiak.

**Laugarrena.**— Batzordearen organigrama honakoa izango da, Segurtasun Agiriak diotenaren arabera



Erabaki hau indarrean sartuko da onartzen den egunean; dena den, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta batzordekideei banan-banan jakinarazpena egingo zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko martxoaren 28a.

Administrazio Kontseiluburua,  
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

d) Aprobación de los Documentos de Seguridad que se elaboren, revisión de los informes de auditoría que en materia de seguridad se emitan periódicamente y revisión de los informes de verificación del correcto cumplimiento de lo dispuesto en el Documento de Seguridad.

e) Análisis de los informes explicativos de aquellas incidencias que afecten de manera grave a los Sistemas de Información, así como el seguimiento de los diferentes Planes de Seguridad que se definan.


**Segundo.**— La referida Comisión funcionará como órgano colegiado del ente público, de conformidad con lo que se establezca en la primera sesión para constitución de la misma y en cumplimiento de los capítulos II y III del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La dependencia jerárquica y funcional será de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud. En particular, para agilizar el desarrollo de sus funciones, podrán crearse en su seno los grupos de trabajo que se consideren oportunos, sometiéndose sus resultados a la aprobación de la Comisión.

**Tercero.**— Las funciones que realice la Comisión deberán llevarse a cabo en el marco legal vigente sobre la materia y, al tiempo de dictarse este acuerdo, en coordinación con la Comisión de Documentación Clínica adscrita a la División de Asistencia Sanitaria.

Los miembros de la comisión creada o sus sustitutos serán designados por el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud. El presidente y secretario serán dos miembros de esta comisión y serán también nombrados por el Director General.

**Cuarto.**— El organigrama de la comisión, siguiendo las pautas del Documento de Seguridad, será el siguiente:



El presente acuerdo surtirá efectos a partir de la fecha de su adopción, sin perjuicio de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y notificación personal a los miembros designados para la Comisión.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de marzo de 2003.

El Presidente del Consejo de Administración,  
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.